

# ANTZERU



EVSKALSAKINTEZERTIAREN  
ILEROKOKA

MARKIEGI'tar PELI

## SEME ONDATZAIĒA

— LAU EKITALDITAN —

50-51'gaŕen Zenbakia

V'gn. URTEA.

1936.—Otsaila-Epaila

8 PESETA URTEKO.

1936.—Tolosa'n: Lopez Mendizabal'entean.





## JAKINGARIAK.

### Erljio-Kutsudur Antzertia —

Emanaldi ontan azaltzen degu Ebanjelio'tik arturik Markiegi'tar Peli'k antzertira-ko eratu duen lan polita «Seme ondatzaiilea» deritza. Jesukristo gure jaunak esandako ipuiak ala zion Lukas deunak dionez: «Gizon baten ba-zituen bi seme. Aietako gazte-nak esan zion aitari: Aita emadazu neri dagokidan seni-parte. Aien artean banatu zituen beraz ondasunak.

Zenbait egunen buruan seme gazte-nak guzia bildu zuen eta ufutiko lufalde batera joan zan. An ondasun guziak ondatu zituen, lasaikerian bizi zala. Guzia ondatu zuenean, gosete gaitza gertatu zan lufalde artan ta bear gofian arkitu zan. Orduan bere baitarra sarturik esan zuen: Zenbat mofoiek nere aitaren etxean ogia ugari ba-dute, ni beriz emen goseak iltzen nago. Jekiko naiz, nere aitarengana joango naiz eta esango diot: Aita, pekatu egin det zeruaren

aurka ta zure afean; ez det geroztik merezi zure seme deitzea, zure mofoietako bat bezela ar nazazu. Jeki zan beraz eta bere aitarengana joan zan»... Bukaera nola duen ba-dakizute: atsegiña benetan. «Seme ondatzailea'ren» ipuia indar aundiko gaia da teatorako; samufa, betikoa eta ofengatik izkera geienetara aldaturik dago. Euskeraz Zuberoko pastoraletan «Seme prodigoaren» izenez iñoiz tajutua ote duten nago. Erderaz Lope de Vega batek beste askoren artean: ta baita ere Voltaire makufak prantzesez idatzia utzi dituzte.

Oraingo era berian, euskeraz bertso edefez jantzia, Markiegi'tar Peli apaiz jaun eta idazle iaioak antzerki bikaña eskeñi digu.

Gure gazteak, luistar eta beste eleiz-bileretakoak maiz antzetzuko dutela uste degu.

Toki guzietan erlijio-gaizko antzerkia befiro piztutzen ari da. Emen askotan aiatu izan ditugu, Gheon, Chance-

rel eta beren lagunen lanak. Ea bada «Seme ondatzailea» laister Euskal eriko bazter guziak ikertzen dituan. Ikas bidez onuratsu bada; erlijolasez beriz goitara.

### Euskal-teatroa Laburdi'n —

Sasoia alakoa izaki, bazter guzietan gaztek komediak egiten ari dituzte, zeinek politikago. Biziki laket dugu, zeren euskerari gero ta bide geiago egiten zaion.

Jendek obeki konprenitzen dute nork bere sortefiko mintzaiari bear diola ohore ekafi, alik eta gartsukiena.

Azken aldian aipatu ditugu ainitz efi eta goretzi ere. Ez ditugu beriz izendatuko. Jarai dezaigun bakañik gure sailari.

Hasparnetik beñia eldu zaigu, «Zalduko erbia» eman dutela ezin obeki efiko mutiko gaztek. Edefik izan dute azken urte oietan, ala nola: «Zikoitza'ren gartzigua»; «Betiri zapataina»; eta «Behorlegi'ko etxeko jaunak». Gure gorespenak gizon gazteai ta gidatzen dituzten apaiz gartsuai. Jarai ortan. Talenduak ez dira gaitzurupean atxikitzeoak.

Gure agufa joan dakiotela berdin Ziburu'ko andre gurbilaj, aurtan nai izan dute saio bat egio euskeraz eta

berentxedetara eldu dira bere ueste baiño ederkiago. Jendea biziki poztu zaiote ta efitañek esperantza dute ain ongi asiz geroz ez dutela geiago komediarik emanen euskerari egin gabe.

Sara'n euskerarik gozoena erabiltzen duten fama da, biz-pairu mende ontan.

Ez da bada mirakulu efi ortan ere euskerazko teatroari begi ematen bai diote.

(*Aintzina'tik*).

### Bichy ala Ahuchky? — —

Baiona'ko «Gure Hefiak» argitaratu du «Bichy ala Ahuchky» deritzan antzerkitxoia.

Pozik jakin degu erebista ofek beste komedi batzuek azaltzen joateko asmoa duala.

### GALA'ko Antzerki jaiak —

Urtero bezela, San Jose egunez, Donostia'ko Euzko-Etxekoak, «Victoria Eugenia» antzokjan, galako jai aldia eratu dute.

Aurtan, Bañola jaunaren «Zozoafó» lau ekitaldiko antzerki beñia, lenengo aldiz antzeztu zuten.

Bai Euzko-Etxea'ko talde ospetsuak, eta bai zuzendari eta gañerakoak zorion agurik beroenak ondo irabaziak


MARKIEGI'tar PELI

# Seme ondatzailea

---

---

LAU EKITALDITAN



1936 - Tolosan'n—I. LOPEZ MENDIZABAL'enean

## ANTZEZ-LAGUNAK

---

Aita, . . .	60 bat urtekoa
Seme zahena	30 bat urte
Seme Gazte,	18 bat urte.
Yeremi . .	<i>Gazteren kideko lagun</i>
Ismael, . .	»           »           »
Simon, . .	»           »           »
Yuda, . .	»           »           »
Bartolo, . .	<i>ostalaria</i>
Mikel, . .	<i>mofoiá</i>
Yosue, . .	»
Yoanes . .	»
Txistulariak,	(ezkutuan)

errua-0001 e-01

Yudutar efi batean. Yesukristo an bizi zanan edo.





# SEME ONDATZAIĒA

## I. EKITALDIA

Etxetik iges.

Etxe aberats bateko jantokian.

## LENENGO AGEĀALDIA.

Aita, Zafena ta Gazte.

(*Bazkultzen diardute*)

- Aita — Jan zak ba, seme; aspaldi ontan (*Gazteri bigun*)  
ilun abilkrit.
- Gazte —(*tuntun*) Ez det nai.
- Aita — Zergatik baiña? Ez det ba miñik  
iñun izango; bestela  
esango euke...
- Zafa — Utzi bezaio:  
Igatiko dio berak.  
Gogorik-ezen gaixo ori, aita,  
berez-berez osatzen da.  
Ez du goseak ilko...
- Gazte — Iretik  
jan bear banikek beintzat!
- Aita — Tira, semeok, aseferik ez.  
Anai maitekor antzera  
jatordu bat noiz egingo ote da  
gure sukalde onetan?  
Ekin ba jaten, mutil aundiak  
egiteko.
- Gazte —(*tuntun*) Nik ez det nai.
- Aita — Len ere esan dek. Zer ba, semetxo?  
Esan idak ba zer dekan.  
I, ola, triste abilenetik  
ez diat pozik barnean.

- Arpegi ori luxe-luxe egin,  
ez itz, ez jan ta ez edan,  
eori triste ta areago ni.  
Esan ba beingoan, esan!
- Zafa — Ez dezaiola geiegi jardun...
- Gazte —(beretzat) Bai, baiña nola ordeat?...  
(batera) Bai! Zer afaiol Lokafia autsi,  
ta utzi dezagun etxe aul
- Aita —(zerbait nabaituz)  
Ekaitz-borbofa dek zerugoian;  
semetxo, ator onera.
- Gazte —(burua jaso ta zakar begira)  
Zer bear du bat?
- Aita —(bigun) Ator, aitatzok  
ipuin bat...
- Gazte — Ez naiz umeal  
(jaiki ta artega biziz, asmatu ezirik)  
Ara! Gaur bertan noa emendik...
- Zafa —(Bat-batera jaikiz)  
E! Zer diok?
- Gazte — Bail Gaur bertan!..
- Aita —(pakez) Jafi zaiteste. (Biak jati)
- Gazte —(befiro jaiki ta artega biziz)  
Ta...ba...ortako...
- Aita — Jafi adi ta pakean...
- Gazte — Ez det astirik! Etxe zuloan  
sartuta betil! Gaiñera,  
iñoren mende, norik bere nairik  
egin ezindal Gazte bat  
ezin diteke onela bizil  
Ni banoa, ta...
- Aita —(oldoztun) "Gazte bat"..  
Gu ere, seme...
- Gazte — Ez, ez! Alpefik!  
Ez det egingo atzera!
- Aita —(Zafa'ri) I, solorako ordu dek; oa.  
An gaituk biok berela. (Zafa jaiki ta jun)

## BIGAREN AGEÑALDIA.

Aita ta Gazte.

- Aita — (Gazte'gana uferatu ta lepoan besoa, maitetz)  
Baiña zoratu egin al zaik?



Gazte —(zakar) Ez!  
Aspaldiko asmo det aul  
Ni ez naiz jaio etxe bañuan  
bizi izateko, ez! Zer ba?  
Kaiolan txori gaixoa, edo  
txakufa katez bezela  
beti lotuta, beti negafez  
nai al du egon naitean?  
(Aita'k naigabez burua makur. Gazte, gero beroago, ta beti  
artega)

Gazte — Txoriak bere kaiol-burnia  
beingoan ufa baleza,  
arin loake txofotxioka  
baso ta zelai maiteral!  
Azkatasunal Azkatasunal!  
Bizitz-zorion beteal..  
(amets antzo)  
Zelai ezeak dizun usaial...  
Baso itzalaren edefal..  
Ainbeste lore..., ainbeste txori...  
ainbeste sagar...

Zaiñetan  
odola pil-pil, eguzki beroz  
dana kixkal dagonean,  
oi zein eder dan zugatzera juan  
eskua luza ta artean  
ikutugabe dagon sagafa  
eskuratu ta jateal..

Aita —(beretzat erdi-negafez)

O! Baiña zer da au?

Gazte —(jafaiki amesetan) Udabefian  
lur dana lore danean,  
egunsentiko intza eguzkik  
dizdizeratzen dunean,  
lore mardulak (batzuk gofixka,  
besteak zuri beltzeran)  
gozo-gozotan, jakin gaberik  
maite-miñez daudenean,  
oi nor litzaken orduan erle!  
Oi nor lebilken egetan  
lorarik-lora, maite-egafia  
zearo ase artean!.. (liluraz geldí-unea)

(bañ-batera sendo)

Nik badezaket! Biotz, oraintxe!

- Aita — Ixoin, lagunok!  
—(bat-batera Gazte'ren oiñetara)  
Seme autl  
Ire aitaren begietako  
negar gafatzak iretzeat  
balioko dik... Etxea utzita  
nora oake?
- Gazte —(amofoz) Zerera!  
Etxetik kanpo ez du beotek  
uste ezer danik! Etxea!  
Etxea betil
- Aita — Bai, seme, etxeal...  
Ik ere egunen batean  
ikasiko dek, gizagaixo ofek,  
etxeke beroa zer dan...  
Maitasun-bila kanpora, seme?  
Maite, nik, seme, benetan!  
Biotza ufatu...
- Gazte —(egon-eziñez) Ez det astirik!  
Or ditut lagunak deika!  
Eman-beaia eman bezait bai  
ta banao nil
- Aita — O, beraz  
aita zar onek ez dik balio?...
- Gazte — Zer aita gero! Pardela  
artzera noa. Lufetik jaiki  
ta nere dirua bekar! (Gazte'k urten pardeletara)

## IRUGAREN AGEALDIA.

### Aita bakarik.

- Aita —(jaiki ta zerura besoak jasoaz otoizka)  
Jaingo laztana! Aitzetik ura  
zuan Moises'ek atera;  
biotz gogor au aitz ua baiño  
gogofagoa ote da?...  
Befogei urtez zure efiari  
erakuts ziñon bidea;  
argi-izpi batez ez ufatuko  
Zuk biotz onen gau beltza?...  
Zatez Yabok'ek bere semeai  
eman zien onespena;

ta agure zar au, seme gaberik,  
bizirik zoaz iltzera?...

## LAUGAREN AGEÑALDIA.

Aita ta Gazte.

Gazte —(*pardelaz sartu*)

Oraindik emen? Etezatzeko  
izango da gero betal  
Diruak laster ekafi bitza.  
Egin bedi banaketal

(*Aita, zer egiten duan ez dakiala, sorgor, atera bedi dirutara*)

## BOSGAREN AGEÑALDIA.

Gazte bakafik.

Gazte —(*barne-izketan*)

Zer dek, biotz, zer? Zeintzuk dabilzkik  
bufukan or bañean?...  
Garaile gaituk! Ez izan bildur!  
Eutsi oraintxe! Une bat,  
eta azke gaituk!...

Baña au ikaral

Gorputza dardar... Katea,  
tiratuz, ala jafi oi dute  
ikara lafi batean!...

(*bigunduz edo*)

Aita... (*biotz-gogor*) Zer diot? Ez, onezkero  
itxi begiak ta auferal  
Ifits-beofak artega daude  
noiz luzatuko ugelak!  
Eten bedi bein estuntza latz aul  
Lertu bear det bestelal...

## SEIGAREN AGEÑALDIA.

Gazte ta Aita.

Aita —(*sartu diru-poltsaz*)

Ofa dirua. (*eman*) Ta orain ator  
azkenengo aldiz.

Gazte —(*afituta*)

Zer ba?

Aita — Azken-laztana ematerikan  
ez al ukatuko beintzat!..  
( *Besarkatzen du luze. Alako batean, Gazte askatu zakar  
ta urats lariz urteten da bildurgatiro, Yudas azken-apari  
gauetz bezelatsu.* )  
( *Aita, negafez atera begira apur batean dagoan bitartean,  
ekiten dio pianoak (au kendu diteke) ezteki "Ufundik" jo-  
tzen. Aitak ilun:)* )

Aita — Agur, semetxo maite,  
biotz gabekoa.  
Aita zafa negafez  
utzita baoa...  
Ori dek seme baten  
azken eitekoa!  
Eguzkia baiño len  
joango nauk mendira.  
Ta andik egun osoan  
egongo begira  
noiz agertuko ote den,  
seme, ire dirdira.  
Zer egin det nik, Jauna,  
au merezitzeko?  
Seme batek etxetik  
iges egiteko?  
Il nadin! Il, Jauna, bail  
ola bizitzeko!...

Oiala poliki-poliki bera.



## II. EKITALDIA (1)

Nasaikerian.

Agertokian, taberna atari bat: jarleku luze bat, añizkoa edo, ormiari detzala. Sartu-urteneko ate bat ezkefal-dean, taberna-bafurakoa.

### LENENGO AGEĀLDIA.

Gazte, Yeremi, Simon, Ismael ta Yuda.

(*Tokera diardute*)

- Gazte —(*bero*) Bota befirol Au suerte txafa  
gaurkoal Ez bal Alpefik  
diru guztiak galdul Baziak  
beste euneko bat, Yeremi!
- Yeremi — Baziak.
- Simon — Ez, ez! Neuk eingo diat.
- Yeremi — I ixilik, Simon. Bein neri  
esan ezkero...
- Simon — Bai, txatxu onal  
Bazekit nik ire befi...
- Yeremi —(*zematuz*) Zer esan nai dek?
- Simon — Ez, utsa, utsa...  
Ik ere besterenetik...
- Yeremi —(*arganatuaz ta ukabilaz zemaika*)  
Bekaiñean jo ta ointxe bertan  
ez badek nai lur jaterik,  
zirtzil, gizatxar...
- Yuda — Ara. Onena;  
ba'deritzαιο Gazte'ri,  
guztiok befiz jokatu.
- Gazte —(*pozik*) Baital  
Sakela diruz beterik  
zegok oraindik. Jokatu! Ez dik

(1) Nai izan ezkero, ekitaldi au oso-osorik kendu ditek.

ola ibiltzerik merezi.

Ekin guztiok!

- Simon, Yuda, Ismael—(zarataka) Orixel Ori!
- Simon —(ondo egiñaz ta bizkafean joaz)  
Au dek gizona! Ederkil
- Yeremi — Tira bal Denok joka dezagun.
- Gazte —(afo) Denetan lenen baietz nil
- Simon —(beretzat) Gizajol...
- Ismael — Baiña zer joku edo  
zenbat egitera dek, i?
- Yuda — Ba, len bezela: befogei lenen  
egitera. Tira, ekin!
- Simon — Ez, ez gizona; ez diagu nai  
olako joku luzerik.  
Oraingo onetan nagusi dana  
irabazle uraxe bedi.  
Nai al dezute?
- Gazte — Neregatik bai.
- Yuda — Guregatik ere berdin. (Guztiak baiezkoa)
- Yeremi —(botatzeko gertu)  
Nun dek afaia?
- Yuda —(erakutsiz) Ez al dek emen  
ikusten? Ara: emendik  
zetofek lauko txikia; emen  
kutxiloa...
- Yeremi — Ikusten dit.  
Gazte, ta lengo apostua? e?  
Ez al dek orain kemenik?
- Gazte — Kemena? Bai bail Baziak!
- Yeremi — Zenbat?
- Gazte — Ogei duro ba.
- Simon —(beretzat) Geisgi  
ola galtzeko...!
- Yerami — Egiña zegoki  
(botatzera)  
Baziak! (Simon'i) Kendu aufetik!
- Simon — Kabituko aiz! Lapur...
- Yeremi —(bero-bero jaiki ta ukabilaz zematuz)  
Ber-bertan  
utziko aut!
- Simon — Ik?
- Yeremi — Bail
- Yuda —(paketuz) Geldil
- Ismael — Tira, mutilak, beingoan ekin.

- jokuan. Bota, Yeremi  
Yeremi —( *Mafan befiz jafi ta bota. Gero, ikustera joan arin, ta besteak ere berdin bakoitzak berea* )  
Or ziak bal Eup! ( *bota, ta ikusita* ) Afano beltzal  
Etzegok au apurtzerik! ( *Gazte ta Ismael ikustera* )  
Lauko bafuan sartu dit!
- Simon — Ta zer?  
Besteok oindik atzetik!
- Yuda — Ori esan zak!
- Yeremi — Bai nai badik!
- Gazte — E?  
Nik nere diat azken-itzl  
Bota mutilak! ( *Yudak bota* )
- Ismael —( *ikusita* ) Afai!  
Yuda —( *galdu dualako* ) Utsal  
Ismael — Orain ni... ( *joan ta bota* ) Oa zuzenkil  
Yeremi — I ere joan aiz. Punto bakafik.  
Ismael —( *ikustera* )  
Punto baizik ez dit egin?
- Yeremi — Ez. Or...  
Ismael — Afai!  
Yuda —( *Simon'i, botatzeko gertu dagola* )  
Tira ba, Simon,  
egin oraintxe alegin!
- Yeremi —( *bereaz afo* )  
Gogoen paltaz ez dek izango...
- Simon — Ernai belafi ta begil ( *bota ta kutxi/loa jo* )  
Yuda — Ori dek, Simon!  
Simon —( *ikustera afo* ) Tokea, amabi;  
laukoa, lau; amasei nik! ( *pozez* )
- Yeremi — Gauzial Ori dala-ta afotu?  
Ismael — Ixo! Ea ba, Gazte! Zirt  
edo zart orain egin bear dik  
jokuak.
- Simon — Leku Gazte'ril ( *leku egifiaz* )  
( *beretzat* ) Etzegok onen bildur aundirik.  
Au beti lenen... atzetik.
- Gazte — Bazijoak e? Be'ira ondo! ( *eskuari eragin batzuek eman, bitartea neufitzen bezela* )  
Or zijoak neufi-neufiz! ( *bota ta besteak baiño pun-  
to txafago* )
- Yeremi —Ezer ez! Punto.  
Gazte — E? Zer esan dek?  
Befiz galdu? ( *ikusita* ) Suerterik

- batere ez diat! ( *amofoz* )
- Simon —( *beretzat* ) Jakiña dek ba!
- Gazte —( *amofa biziz* )  
Bañan au zer da? Etxetik  
atera nintzan egun artatik  
dana oker...! Ezin, ezin  
ezer zuzendul... Laster ez diru,  
ez etxe...
- Simon — Baiñan, i beti  
gauz oiekintxel! Ortik etzegok  
biotzarentzat atsegin!  
Gauz oiek aztul Arantzak utzi  
ta artu lorak ta aien eztil
- Gazte — “Gauz oiek aztu”, “Gauz oiek aztu”...  
( *erabakiz* ) Egia diok! Zer nerit?  
Lau egun triste mundu onetan  
ta eurak kezkaiz beterik?...
- Simon —( *lagunduz* ) Ori esan!  
( *Bitarte ontan Yeremi'k besteai diru zifruak egin ta kezka erakutsi, alegia zotik ez ote dien ordainduko Gazte* )
- Gazte —( *bereanago* )  
Ez! Gel bedi Yainko  
zeru zokoan! Gel bedi  
aita etxean!... Pafe algara  
luze-luze bat nai det nik!  
Betor jolasal! Betor ardoal!  
Betor, betor lizunkeril  
( *Ukabilak goian, afituta bezela gelditzen da* )
- Yeremi —( *uferatuaz, bildufez* )  
I, Gazte
- Gazte — Zer dek?
- Yeremi — Jokua joku  
esan oi da-ta, lengoa  
zertan gelditu ote dan...
- Gazte — A bail  
Zenbat uan?
- Yeremi — Ogeiko bat  
azkenengo au. Ta... badakik ba...  
lendikan ere...
- Gazte — Beingoan  
esan zak danal
- Yeremi — Ara ba: Lendik  
befogei duro; gaurkoa,



beste ogei; ba irurogei duroz  
egiten dek nere zoña.

Gazte — Oraintxe bertan...  
Simon —(uferatuaz lañi samar) Nerekin ere...  
Yuda, Ismael—(berdin) Ta gurekin...  
Gazte —(asefe=samar) Afaioa!  
“Gauz oiek aztu”, “Gauz oiek aztul”  
neri... ta zuek gogoan?  
Ez dik ajolik... Bartolol! (*deika*)

## BIGAREN AGEÑALDIA.

Lengoak eta Bartolo.

Bartolo —(*kanpotik*)

Zer da?

Gazte — Atera maia kanporal

Bartolo — Bai, bai oraintxe.

Gazte — Kiño egin ta  
azken-diruak ardotan,  
iño ditzagun!

Simon —(*ondo egiñaz*) Ori on, Gaztel  
(*Bitarte ontan Bartolo sartu maiaz; ipiñi ta urten jarle-  
ku bila. Auek artu, ipiñi ta edontzi bila urten. Besteak ja-  
ri, Gazte erdian ikusleen aufez-aur artzen dutela*)

Yuda, Ismael— Ederkil! Bai, bai!

Simon — Gizonak

ala bear dik! Zafen esana  
badakik: Unore onak  
diru guztiak baiño geiago  
balio omen dik. (*guztiak pafe*)

Yeremi — Mozkota

al dun guztiak afapatzen dik!

Yuda —(*diruziñua egiñaz*)

Txanponak bear, txanponak!

Simon —(*Yuda'ri*) Ixilik ago! Oin ez ekafi

diru konturik gogora!

Edan zagun bai ta gero or konpon!...

Bartolo —(*edontziakin sartuaz*)

Ta? Ein da beraz naikoa?

Yeremi — Bal...

Bartolo — Zein izan da galtzaile ori?

Gazte —(*bizi*) Galtzaile danok! Ardoa

ekafi ik bizkor!

- Bartolo — Zer marka edo?  
Gazte — Lastefen mozkórtzekoal  
Bartolo — Ba nere kontul (urtenaz) Bateon batek  
ezagungo dik gaurkoan.  
Gazte —( *biñi ta bat-batera kantari*  
“Ezkongaietan zerbait banintzan”en doiñuan )  
Mutil gaztetan zerbait ba nintzan  
orain zartuta, ezer ez.

( *Besteak ere lagundu. Gaztek eskuaz maia joaz darama konpasa zaratatsu ta zoro. Bartolo ardo-botelaz sartu ta parte egiñaz edo, urten. Yeremi'k ardoa eman lenengo Gazte'ri; besteak eurak artu. Gazte'k edan dsangada batean ta, besoak zabalduz, besteak ixil-arazi ta bakañik jafaitu kantari, gero beroago ta zoroago* )

Jokuan asi ta ateratzen zait  
beti guztia aldrebes;  
nere gogoa egin ezkeru  
ajolik etzait... baterez!

- Guztiak —( *txalo ta deadar* )  
Ori dekl

Au dek bertsolarial!

- Yeremi —( *ardoa eskeñiz* )  
Toril Eztafi zuloa  
leguntzeko...

- Simon — Bail Edan zak! Onek  
piztutzen baidik biotza.  
Onek uxatzen kezkek, ta onek ( *maltzur* )  
askatzen dik diru-poltsal...

- Yeremi — Ekin beñiro, Gazte!  
Gazte —( *buru arinduaz* ) E? Zer, zer?

- Guztiak — Bertso bat!  
Gazte — Aiba bertso bat!  
( *lengo eresian kantari* )

Edefa da bai zugatz gaiñean  
sagar kolore-gofia;  
edefa ere baratz-erdian  
usai gozodun loria.  
Edefa ( *i* ) ardo beroa eta  
eder bixigu eña;  
baiño oiek baiño edefago da  
nere kutuntxo maitia.”

( *Begiak ñir-ñir, igikerak nafaztuaz, buru-jabetasuna galduaz* )

- Simon —(amaituaz bat eskua estutuz)  
To bosteko oril
- Guztiak —(zarataka) Bapol Ederkil
- Simon — Gora Gaztel
- Guztiak — Goral Goral...
- Yeremi —(ardoa eskeñiz)  
Beste apur bat...
- Gazte — Bail Au dek mamal  
Sutan jartzen dik biotzal
- Yeremi —(beretzat) Ez daukak esan-bear aundirikl...  
(deika) Bartolol
- Bartolo —(kanpotik) Bai, ointxe noal
- Yeremi —(Bartolo'ri botela utz bat emanaz)  
Ea beste bat,...
- Bartolo — Oraintxe bertan. (urten)
- Yeremi —(Gazte'ri) Au dek ardoa gozoal  
(Gazte'k zearo mozkortuta buruaz baietz)
- Bartolo —(botela befiaz sartuaz)  
Emen nun dezun. Besterik?
- Yeremi — Ez, ez!
- Gazte —(Bartolo ikusita, zer esaten duan ez dakiala, gero motelago ta erdi-esan erdi-kantu, asmatu eziniik:)  
Martolo eta, Martolo eta,  
Martolo eta, Martoa,  
Martolo bolo... Martolo molo...  
Martolo... lo... lo... lo... lo... a.  
(Maigaiñera, besogaiñera, erortzen da ta ala gelditzen lo.)

## IRUGAÑEN AGEÑALDIA.

Lengoak, Bartolo ez.

- Simon —(Yeremi'ri kezkatu)  
Bapol Ta gure diruak orain?  
Nola kitatu oin zofak?
- Yeremi — Gizajol ez aiz ezertako gauz!  
Nik jafi dit ori ola.  
Efazago dek zofak kitatzen  
ori ofela dagola.  
Ikusiko dek... (jaiki ta diruak kentzera)
- Simon — Zer? Danak ostu?

Yuda, Ismael—(afituta)

Enel

Yeremi — Jakiña zegok ba!  
(Poliki-poliki joan ta ateratzen dio diru-poltsa sakeletik)  
(pozez) Emen, emen! Ta orain, esnatu  
baiño len, goazen!

Yuda — Ardoa  
ordaindu gabe?

Simon —(zematuaz) I ez aiz beintzat  
lapurtarako jaioa!

Yeremi — Goazen ixilik!...  
(tabernako atera begira) Agur, Bartolol (eskuaz pafez)  
Agur, Gaztel... Egik lo orain!...  
(Danak urten; ixilik, baiña poz-itxura aundiak egifiaz)

## LAUGAREN AGERALDIA.

### Gazte. Gero Bartolo.

(Apur batean agertokian Gazte bakarik lo, ardo-boteġa ta edontzi artean. Zufunkada batzuek egin bitza nai izan ez-kero. Gerorxeago;)

Bartolo —(sartuaz) E? (afituta) Nun dira aiek? Esaten nun nik...  
ain ixilik!... (Gazte ikusiz) Eta au lotan?

(Gazte'ri deika)

Gaztel (apur bat besotik eragifiaz)

Zu, Gaztel Zer pasa da amen?

Au itxural Gizajoal

Ur pizka batez esna dezadan.

(Ontxi batean ura ta zapi garbi bat ekartzera joan; eka-fi, kokota busti; burua jaso ta arpegia ere busti. Poliki-poliki bere onera betor Gazte. Bitartean auxe diote:)

Bartolo — Onek artu dik mozkofal...  
Dana beronek ordaindu dezan  
besteak iges... Gaur, ona  
zein dan igartzen ez dek efaza...

(eragin batzuek emanaz)

Tira, esnatul

Gazte —(esnatzen asi; amesetan oraindik)

Lau...ko...a

nik... eta...

Bartolo —(eragifiaz) Gaztel Tira, esnatul

Gazte —(amesetan)


Ta nork esan du?... Naikoa!

- Bartolo —(eragin) Gaztel  
Gazte —(ametsetan) Bai, neu naiz irabazle..  
Bartolo — Zer?
- Gizajo! (eragiñaz) Amets zoroak  
utzi ta bizkor esnatu adi!
- Gazte —(esnatzen) Bai...bai...Baiña, nun nago ba?
- Bartolo — Ementxe, Gazte; nere tabernan...  
Begira... ni, Bartolo naiz.
- Gazte — Bartolo?...  
Bartolo — Bai.  
Gazte — Ta, beste lagunak  
nun dira' ba?
- Bartolo — Iges nonbait.  
Gazte —(zearo esna)  
Zer? Ni bakarik utzirik iges?
- Bartolo — Ba...zal Nere gusmoa  
kontu guztia zuk ordaintzeko  
utzi zaituztela ola.
- Gazte — Afano! (bat-batera gogofatuaz)  
Ez, ez! Ezin diteke!  
Ta aiekin nituan zofak  
ordaindu gabe iges? Bai zeral
- Bartolo — Ez dakit ba nik...  
Gazte —(ostu diotelakoa susmatuaz lafi sakelera eskua eramanaz)  
Edo ta...  
(bat-batera jaikiz)  
Bi mila afano! Diru guztia  
ostu didatel
- Bartolo —(afituta) Gizona!  
Lapur zikiñok! Etzauzkatet ez  
atzapafetan, lepoa  
biufituta jaurkitzeko  
beti-betiko itxasoral  
Ta nik orain zer?... Dirurik ez det,  
etxetik... (aztu naiz)  
Au amofal  
Gosete gofi bildurgafia  
danean... Ai ail Nik nora (erdi-negatez ta amofoz)  
joan bear det?... Tximista batek  
erdibi nazal Yainkoak  
(Yainkorik bada) lufazpietan  
sartu naza bein! Otsoak  
agin arten txikitu nazal

Betor, betor eriotza!  
Ta inork ez ba'dit bizitz au kentzen,  
lertu bezait bein biotza!!!  
(*Bere onetik urtenda, zoro antzo, gelditzen da.*)

Bat-batera oiala bera.





### III. EKITALDIA

Damua.

Agertokian, baso (arizti) itzal bat; aritzak sendo, ga-fatz. Argi berde motel batek uxatzen du iluna ozta-ozta. Dana geldi, iñun, barne-bilgafi.

Gazte, laiñotsu, bere artzai-makila luzeaz. Soñnekoak zarpil zikin; ile luzeok nafas; oiñztako ta erastunik ez.

---

#### AGERALDI BAKARA.

Gazte bakafik.

Gazte —(*Oiala jasotzerakoan, aritzondo batean jafita agertzen da, buru-makur. Geroxeago jaiki ta ibili bedi. Alik eta biotzondo ta egi-usain aundienaz esan bitza bertsook.*)

Baso, entzun ik beintzat  
nere deadafa.

Entzun, biotz gaixo onen  
ulu ta negafal

Utzi ba'nitun utzi  
etxe ta aita zafa,  
orduz gero nunaitik  
dizut ezbeafa...

Gazte ta diru-jabe,  
uste nizun zoro  
nere mofoe izango  
nizkitzula oro.  
Munduan sartu nintzan;  
ar nindun gozoro...  
Ez nekin eingo nunik  
oin negar goizoro.

Lagunak izan nitun...  
Madarikatuak!  
Aiek galdu ninduten!  
Zorion, diruak,..

Gorputz ta biotz ditut  
aiek ustelduak...  
Efe, kixkaldu bitza  
inpernuko suak!...

Aieri ikasi nien  
jokorako griña.  
Aiek ziri ta ziri,  
nik buru ariña,  
diruak ostu eta  
beartsu egiña  
utzi ninduten, bakar...  
iñora eziña...

Azkatasuna nizun  
nik ames kutuna.  
Ez nuen nai etxeko  
lokati biguna.  
Griñen esku utzi nuen  
nagusitasuna...  
Aren ondorena det  
mofoitza aztuna.

Baso, zuk badakizu  
zer den ler-beafa.  
Baso, zuk badakizu  
zein beltz den bakafa.  
Baso! Biotza ixurtzen  
utzi pafa-pafa...  
Utzi zerbait arintzen  
nere zoritxafa.

Goizeko izafa bezain  
eder ta lerdena  
mundura atera nintzen  
ifits ta ames dena.  
Geroztik zer gerta den,  
emen azalpena:  
ikus nola nagoen  
len izar nintzena.

Jantziak ufatuta,  
oiñazpiak miñez;  
crestuna saldu nun  
atsegin-ordaiñez;  
Saiets ezufak lafi,  
gosea il eziñez...



Au ikusita nola  
negafik egin ez? (*erdi-negar geldi-unetxo bat*)

Zenbat aldiz egon naiz  
txafien afean;  
ta nasai ezkur-jaten  
aiek ikustean,  
ezkur aiek jan naia  
sortu zait barnean...  
Ezin! Ni ez naiz iñor  
txafien aldean!...

Baso, basol Zer diok?  
Ez al dik zaiñetan  
irakiten odolak?  
Gogaketa auetan  
jartzen naukenean ni,  
buru ta oiñetan  
ikara sartzen-zaidak batera-batetan.

Arnasa ere estutu,  
intziria lafi;  
bulafak puztu eta  
itxia eztafi;  
masail-begietatik  
negar-malko itufi...  
Zeru-lufak iguiñez  
jaurtikia naiz nil... (*geldi-unetxo bat*)

Iñoiz gogoratzen zait  
jaiki ta joatea.  
Zabaltzen didatenez  
etxeke atea.  
Aitari negar-malkoz  
barka eskatzea.  
Biotzak baietz dio...  
Lotsa naiz ordeal

Aita zar gaixoari  
nik egin niona,  
ta orain barka eskel  
Ez diteke iñolal...  
Bizi dala baneki...  
ene aita onal...  
Barkatuko lidake!...  
Zer poza biñal!...

Gurean zenbat mofaik  
nai aiña janaril  
Ta ni goseak iltzen!...  
Biotz, piztu adil  
Jaiki ta goazen bizkor!...  
Baiñan, au lotsaril  
Zer esango zioat  
nik nere aitari?

Bai, biotz! Arpegia  
josita lufean;  
"Aita—esango diot  
intziri batean—  
"pekatari naiz zeru  
"ta zure aurfcan!"  
"Semetzat ez, ar nazu  
"mofoitizat etxean!"...

Ez dit ezer esango...  
Esango balit, zer?  
Ez ote det merezi  
nik orain edozer?...  
Ez dagoke neretzat  
lan gafatzik ezer;  
dana egingo diot  
esan bezain laster.

Lenago ni ninduan  
semerik maitena.  
Ta artu banuen ere  
galbide beltzema,  
ikusiko du ondo  
damutu naizena...  
arena dudala nik  
biotz au den-dena!

Noan! Zuzenbidean  
beingoiz nadin jafil  
Agur, agur baso itzal,  
lufalde ta txafil!  
Deika naukazu, aita,  
deika zure egafil!...  
Artu nazu, aitatxo...!  
Bioen pozgafil... (*abiatu*)

Poliki-poliki oiala bera.



## IV. EKITALDIA

### Etofera.

Agertokian: ikusleen eskuira ta ber-bertan, etxeko sa-  
fera dotore bat; atzeraxeago, munotxo bat ezkutatik  
igotzekoa. Ezkefaldean, zugatz aundi eder bat ber-ber-  
tan; atzerago, ufuti, mendiak; bien bitartean, etxeko  
bidea.

---

### LENENGO AGERALDIA.

Aita zafa, Mikel ta Yosue.

(*Aita, zar-zafa, bi moñok (Mikel ta Yosuek) erdian arturik eta lagundurik, makilaz, nafaz eta makur ateratzen da etxetik eta eskuiko munoruntz dijoaz irurak geldi-geldi ta itzalki-ro. Goizeko amaikak edo*)

Mikel — Egun edefa degu.  
Eskefak Jaunari.

Yosue — Eguzkia jaiki da  
mendien gaiñetik.

Aita —(*ifun*) Bai, beste egun bat... Atzo  
ere ez zan ageri...  
Gaur ere...

Mikel — Bear bada...  
Gaixoak baleki  
ni nola bizi naizen  
bera joan zanetik!...

Yosue —(*poztu nairik*)  
Etoñiko dal

Mikel — Bai, bail

Aita — Egunero berdin:  
igo, mendian jafi,  
zai egon... ta alpetik!  
Iluntzean etxera  
betiko bidetik,

- Yosue — Goazen!  
Mikel — Goazen mendira  
poliki-poliki...  
(*ezkutatu irurak eskui aldetik. Laster agertu mendiari  
gaiña artzen*)
- Mikek — (onean) Ezetz! Ikusiko du...  
Aita — (*gaiña artzean, ufutiko bidera begira zutik (besoak zabalik edo) laiñotsu*)  
Semetxo, nun abil?  
Bide-baztafen baten  
agian erdi-ilik...  
Edo bildots galdua  
bezela, lafetik  
iñola urten ezinda...  
Semetxo, atorkit!  
Emen aitatzko zai-zai  
besoak zabalik!...
- Mikel — Nekatu egin goda,  
Jauna, jafi bedi.
- Aita — (*jañiaz*) Jaunak biotz bafuan  
baietz esaten dit,  
ikusiko dedala  
etxean oraindik...  
Mundu zabal guztia  
dakuszun eguzki,  
esan zaidazu nun dan  
neu bila joan nadin!...  
(*ilun, tinko, sorgor, bidera begira; beroxeago bat-batera*)  
Aral BeltzUNETXO bat  
dakust an ufuti...  
Bera det!...
- Mikel — (*beretzat efukiz*) A gizaixo!  
Ortan gera betil
- Yosue — Jauna, bidezkoen bat  
izango da.
- Aita — (*biotz-miñez*) Mutil,  
ez zaidak ori esan...  
Au une lazgañil  
(*biotzgabebetuta*)  
Ez, ez! Nere semea  
ofek ez dirudi...  
jaso liraiñagorik  
zizun arek, noski.

Mikel —(poztu naiaz)

Bai. Baiña zorionak  
ez du berandurik;  
itxoin beza, Jauna, ta  
noizbait nunbaitetik...

Aita —(beñero poztuaz)

Bera det! Bera det, bail  
Ez esan ezetzik!

(obeto begiratuaz)

Bera diat! Au poza!  
Ez, ez! Ixil adi!

(gero beroago)

Gaur ez diat begi zar  
motz auen beafik!  
Ez al didak somatzen  
biotz au dardarti?  
Ez al diok igartzen  
gorputz zar oneri  
piztuaz dijoala  
neuk ustegaberik?  
Goazen bidera!... (besteak eraman naiaz)

Mikel —(baretu naiaz) Baiña,  
nolaz ain uruti...?

Aita —(berean bero)

Bai, Mikel, begi auek  
badituk oraindik  
semearen dirdira  
artzeko nunnaitik!

(begira beñiz ere)

Bera diat!... Gaixoal  
Nundik aiz ibili?  
Ez dakafek gizajo  
lengo aren antzik!  
Ez kapa, ez buruko,  
soñnekoa zarpil,  
burua makur... Ator,  
ator, seme, arin!  
Besoak zabal-zabal  
bide erdira nadin!

(Ekin bera bakafik joaten, iñor berakin dagoenik oartu ere gabe. Mikel ta Yosue alderatzen zaizkio ta, itzalez, ixil laguntzen diote. Au guztia biotz-beroz. Eskui-aldetik ezkutatu ta laster agertu. Aita, nafasean arin. Agertokiq-

ren beste mutufera orduko, azaltzen da Gazte III'gn. eki-  
taldian bezela, dana zarpil.

## BIGAREN AGEÑALDIA.

Lengoak eta Gazte.

Aita —(agertoki mutufera dijoala, biotz-eragiñaz estu ta sorgor)  
Semel... Semel... Ator bai...

Gazte —(oiñetara negar-intziriz)

Aita, pekatari...

Aita —(lufetik jasoaz ta besarkatuaz)

Bai, etofiko intzana

banekiken! Ez dik

aiten biotzak iñoiz

esaten gezufiki.. (geldiunetxo besarkatuz)

(mofoiari deika. Gazte, lotsaz erdi-intziriz)

Mikell Josue! Onen

jantzia ekafi...

Erestun, oiñetako...

Dana... zekor bat il...

Txistulariei deitu...

dagigun jai aundil

Mikel —Bai jauna.

Yosue — Ointxe gatoz. (joan biak)

## IRUGAREN AGEÑALDIA.

Aita ta Gazte.

Aita — Semetxo au ilik (beñero besarkatuz)  
bainuen ta bizi det,  
galduta aspalditik  
ta gaur beñiz etxean.

(Gazte'ri oartzuz ta alaitu naiaz)

Negafez oraindik?

Tira, seme, malco oiek

ezkutatu egizk.

Negar aroa joan dek

betiko. Gaur beñiz

etxeratu aiz eta

pozez jantzi adil..

Baekikek semetxo

zer poz daukadan niki..

Ikusi audanean  
menditxo ofetatik,  
biotz nekatu zar au  
dantzan zaidak jafi;  
ta andik ire bidera,  
antxumea irudi,  
etofi nauk.

Gazte —(bere oneratuaz ta sinistu-eziñik lotsati)

Aita,\* ta

dana barkatzen dit?

Aita — Bai, seme, ez izan geigo

gauz ofen kezkarik.

Ire aitak biotza

zabal-zabala dik.

Itxasoan afia

ez al dek ikusi

nola ondoratzen dan

ezeren aztarnik

utzi gabe? Ba nere

biotzean, berdin.

### LAUGAREN AGERALDIA.

Lengoak eta Yosue.

Yosue —(Jantzi zuri, oiñetako ta erestunaz dator)

Jauna, emen guztia.

Aita — E? A bail Ederkil

Tira, seme, sartu zak

jantzi au gaiñetik. (egin)

Jantzi zuri garbia...

I joan intzanetik

ortxe egon dek ire zai.

Gazte —(apal) Bai, aita, bai, gaurtik

ez det befiz galduko.

Aita — Erestuna jafi... (egin)

Oiñetakoak sartu... (egin)

Oña gizon befil

Ator, seme, laztan bat!

Gazte — Bai, aita, poz-pozik! (laztandu)

### BOSGAREN AGERALDIA.

Yoan —(etxe bafutik dator)

Agur, nagusi jaunak!

- Aita — Eu intzan? Zer befi  
dakark?
- Yoan — Txistulariak  
dirala etofi;  
eta gertu dagola  
gaiñera bazkari.
- Aita — Ori on! Eta seme  
zafena alofetik  
agertu al dek?
- Yoan — Jauna,  
nik ez det ikusi;  
baiña emen ez bada,  
laster da; eguzki  
zeru erdira igoa  
bait degu, nagusi.
- Aita — (alai) Ondo dal Seme, ator  
bafura nerekin.  
Nere ames gozoa  
Jaïnkook bete dik.
- Gazte — Aita, zein ona zeran!  
Nik ez det merezi...
- Aita — Oraindik ere ortan?  
Utzi zak bein oril!  
Aspaldiko orde z au dek  
jatordu pozgafil  
Biok eskefak eman  
Goiko Jaun onari,  
ta agiñak zozoztuta  
ekin jatearil  
... Ta geigo ez aifatu  
kontu zar iluniki!  
Ator, ator bafura  
aitaren besotik... (joan biak)

## SEIGAREN AGERALDIA.

Yosue ta Yoanes.

- Yoan — I, Yosue, nor uan  
ori?
- Yosue — Ez al dakik?  
Orixe dek ba Gazte,  
etxetik igesi  
luzaro ibili dana...



- Yoan — Al Ura dek ori?  
Yosue — Bai, gizona. Etziok (txistulariak bafuan jo-  
poz makala egin tzen ekin; oztu-ozta en-  
gure nagusi zafak... tzun bedi, esaten dutena  
Ea pentsa egik: garbi jaso al izateko).  
gaur goizean mendian,  
erdi-itxu egonik,  
ufutira beofek  
lenen ezautu dik.  
Guk besteren bat zala  
Mikelek eta nik,  
ta berak ezetz, ezetz!  
Ta bera bakatik  
iñoizkorik ariñen  
jetxi dek menditik.
- Yoan — Ez dek afitzekoa...  
(batera) Emen zetofek i  
seme zafena. Goazen!
- Yosue — Oneskero berdin  
ziok, ikusi gaituk  
eta...

## ZAZPIGAÑEN AGEÑALDIA.

### Lengoak eta Zafena.

- Zafa — (nekazari antzean)  
Zer? Eguerdi  
ta emen lasai-lasai?  
Ez al dago lanik?  
(soiñuari oartuz)  
Baiña zer soiñu dituk  
oiek?
- Yosue — Ez al daki?
- Zafa — Zer jakin gero?
- Yosue — Ba gaur  
agertu da azkenik,  
jauna, bedofen anai  
gaztea.
- Zafa — (efeta) Zein? Ziztrin,  
mozola arpegidun,  
zoro, ameslari,  
diru goze zitala?  
(gero aseteago)

- Ta zer? Ofegatik  
al dituk soiñu oiek?
- Yosue — Bai, jauna; jai aundi  
egin bear degula  
esan du nagusik.
- Zafa — (asafe) Baiña...
- Yoan — Zekor gizona  
iltzeko... ta oindik  
ointxe asiko ziran  
bazkaltzen. Sar bedil  
Ni or bafura sartu?
- Zafa — Anai txar ofekin  
jan baiño naigo diat  
bertan goseak ill
- Yosue — Ta asefetzen bazaio  
bedofen aitari?
- Zafa — Asefatu? Neu ñagok  
ortarako neufiz!  
Beti etxean zintzo...
- Yosue — Jauna, barka begist...
- Zafa — Zer?
- Yosue — Ba bedofen galdez  
or sartu aufetik  
jardun duan ezkeru,  
emen dala jakin  
naiko luke.
- Zafa — Esaio!  
nai badek. Burutik (*Yos'k erten Aitari esatera*)  
egin duana ointxe  
dakuskiat garbi.  
Senipartea artuta  
joan uan igesi,  
Diruak galdu, bera  
Jaungoikoak daki  
nun ta nola ibili dan...  
ta orain arpegi (*txistulariak ixildu*)  
bere etxera befiro  
etortzeko izan dik?  
Aitak ere negafok  
laster astu dizkik!



## ZORTZIGARĒN AGEĀALDIA.

Lengoak eta Aita.

- Aita — (sartuaz, maitez)  
    Baiña zer abil, seme?
- Zafa — (bizi) Ni ez, ni ez nabill  
    Bedofek ditu emen  
    baztefok nasturik.
- Aita — (onean) Zer ba?
- Zafa —       Zer ba? Ni emen  
    zintzo-zintzo beti  
    bedofen esan danak  
    gazte-gaztetandik  
    betetzen, ta bildotsik  
    ere eman ez neri  
    ostatuan jateko  
    nere lagunekin;  
    ta gaur, bedofen seme  
    alprojazar, zikin,  
    diruak eta izen ona  
    bere nasaikeriz  
    galdu dituan ori  
    zaiola etofi,  
    ta gaur, ori dala-ta  
    zekor gizena il?
- Aita — (onez) Baiña, seme...
- Zara — (bizi)       Zer seme!
- Aita —       Ara: entzun egik.  
    Ontan ez dek iretzat  
    ezeren kalterik;  
    ta jai au egitea... zer  
    bidezkoagorik?  
    I beti ago emen  
    ementxe aiz bizi.  
    Zer dek onen aldean  
    bein-beingo bazkari?  
    Nere guztia ire dek;  
    jabe ta nagusi  
    eu aiz, aitak begiak  
    ixten ditunetik.
- Zafa —       Al Olan...
- Aita —       Baiña anaia  
    damututa ikusiz

- ez al zaik bu bigontzer-  
biotza erukiz?
- Zara -- Bai beak ere ez zeukatu  
zintzo ibili baiziki.
- Aita -- (*bigundu naiaz*)  
Gizaixot Ikusi ba'te  
negar eta intziritz  
belauniko: barkapen  
eske gaur goizetik!  
Ardi geldua arizana!  
sastrako tartetik  
ateratzen dunean,  
seme, ez al dakik  
sorbaldetan artuta  
txabolan zein pozik  
sartzen duan befiro?  
Esan zaidak egiz:  
ez al uan eorek  
gaur egingo herdin?
- Zara -- (*erdi bigundu-ia*)  
Bai... or., jakina ba  
anata delarik.

### BEATZIGAREN AGERALDIA.

Lenengoak ta Gazte.

- Gazte -- (*bat batera etxetik urten eta Zafanaren oiñetaratuaz edo  
eskua emanaz, eskeronez. Zafanari, baterakoan za-  
radatxo bat anaia ikustean*)
- Gazte -- Esketikasko anaia  
biotz onagatik!  
Ortze egon nauk atean  
dana auztzen iari.  
Anai, anaia arzenen  
maiteko aut bea  
Aita, ni seme zintzo (*besei atuz*)  
izango naitz gaurtik!

Oiala bea.

dituzte, ari-ariz, iraupenaren edefez, egiten ari diran lanagatik. Jafai ortan, bañan ...afen, galako jai aundi oiek afetaz eratu; zeatz eta ziur ikasi ta azaldu.

Jai oietara, bestela guregana etorizena ez diran jende asko joan oi da; minga fi litzake gure teatrotzaz iritzi ta uste txafez, befiz etortzeko gogorik gabe utzi araztea. Gure ikufitza bedi «Gero ta obeto».

### Atafatze'n Pastoral bat laister

Befi pozgafi bat eldu zaigu. Zuberoka'ko eri polit dan Atafatze'n, jorailaren 19'n, Pastoral bat, maskarada bat egitekoak dira. Ez dakizkigu pastoralaren izenak eta gañerakoak. Zer nola guziak egunkariak adieraziko dizkigutela uste degu.

Befi au gazitatu nai izan diogu gure irakurleai, aldez aufetik jakin dezaten.

Azkenengo urte auctan ez dute Pastoralik antzeztu ta ikusteko zaleturik daudenak oraintxe izango dute egokiera.

### GARIZUMA.

Lenago, garizuma garaiatu,

jai ta ikuskizun geienak galaraziak zeuden. Orain ez dago onelako konturik. Garizumari begiratu gabe, jai ta dantzaldi nabarmenenak ere, nola nai ta noiz nai izaten ditugu. Beraz antzerki jaiak egiteko ez degu kezkarik izan bear.

Bañan garizumako aldi guren ontan, alba' degu beintzat, erlijio ta kristau ikasbideko egitarauak antolatu bear genituzke: Santuen bizitzak, Testamentu Zar eta Ebanjeliotik artutako gertariak eta Jesukristo gure jaunaren Nekausteko zenbait agefaldi ere bai. «*Nekauste*» ospetsuak Oberamergau'n, Nancy'n eta beste toki askotan antzezten dituzte. Emen ere onelako zerbait eratzen sailatu bear genuke.

Asiera emateko, eredutzat artu diteke Tolosa'ko Ureta Antzokian Efamu igandez ematera dijoazen antzezkizuna:

1'go *Seme Ondatzailea.*  
(iru ekitaldi).

2'gn *Jesukristoren Bizitza'ko.* Agefaldi bi.

3'gn. Abesbatzak abestu ko ditu: Bach, Vitoria, Palestrina, Iruarizaga, Rachmaninoff eta beste eleiz-abesti goitar batzuek.

Onelakoak edo antzekoak dira egitarau egokiak garizumarako.

### III Antzerti-Eguna.

Aurten Antzerti-Eguna atzeratu beafa izan da. Ilabeterik onenetan efi auteskundeak ziralata gure antzetzari talde-takoak beste zeregiñetan lan-

peturik ibiliak bait-ditugu. O-rengatik antzetzari gudua motel zamar joan zaizu.

III Antzerti-Eguna ezin jaitu izango lenago esandako egunean.

Jai onen befi garaiz aditzera emango degu.



# ANTZERTI'k argitara emandako

## Antzerki-lanen efenkada

"Aterako Gera", Toribio Alzaga'ren egintza bakafeko jostludua	1--1,25
"Laño ta Izar" Lizardi'tar Xabier'en ipui antzezgarria . . .	2
"Maya", Labayen A'ren "Ballet" antzekoa . . .	2 } 1,75
"Guzik Gaxo", X'ek erderatik antolatutako bakafizketa . . .	2-3 } 1,25
"Mateo Txistu", Labayen A'ren antzerkia ekitaldi bakafean	4--1,25
"Bi Aizpak", Lizardi'tar Xabier'ek pantzeratik antolatua ekitaldi bitan	5-6--1,75
"Patxiko ta Martintxo", Ume elkafizketa . . .	7
"Zenbalean sagafak?", Nazabal J.'ek Lope de Rueda'ren "Las Aceitunas" euskeratua . . .	7 } 1,25
"Euskel Dantzak", Orkaiztegi'tar P. A.'ren jolasketa . . .	7 } 1,25
"Arantza", Arostegi'tar P.'ren bi ekitalditan antzerkia . . .	8-9--1,75
"Zanpantzar", Alzaga Toribio'ren jostalu pargilea (farsa) . . .	10--1,25
"Seaska-Abestia", Martinez Siefa'ren "Canción de Cuna"tik Lopez Mendizabal I.'ek euskeratua . . .	11-12--1,75
"Goltillasuna" Kardaberztafak emakumezkoentzat eratu-tako antzerkitxoa ekitaldi batean	13--1,25
"Egiazko Argia" (Azken-gudako gertakaria) Piarres Itufal-de'k lau ekitalditan moldatua . . .	14-15--1,75
"Ustegabeke Poza", Aronafiz'tar A.'ek tajutua (ekitaldi bat).	16--1,25
"Ipaflagife", Labayen'dar Andoni. Bi ekitaldi ta azken zati edo epilogo dun antzerkia . . .	17-18 1,75
"Poxpolin Gotta", Markiegi I.'ek euskeratutako antzerkitxoa	19
"Andregaita nai ta . . .", Arozena'tar A.'k idatzitako bakafizketa.	19 } 1,25
"Antigone", Sopokel'dik Zaitegi'tar J.'k euskeratua . . .	20-21--1,75
"Eskaleak", D. Manresa'ren "Los Mendigos"etik euskeratua.	22--1,25
"Urteuena", Arotzena'tar Andoni'ren bakafizketa . . .	23-24
"Txokolo txeri tratolari", Karaskedo O.'tar I.'ren bakafizketa	23-24 } 1,75
"Etxe-aldaketa", " " ekitaldi bateko antzerkia	25--1,25
"Itufan", Aronafiz'tar A.'en Emakumezkoentzat antzerkia bi ekitalditan . . .	26--1,25
"Aralar mendian", Urkia Pernando. Ekitaldi bateko antzerkia gizezkoentzat	27--1,25
"Osaba", Toribio Alzaga'k iru ekitalditan idatzitako antzerkia . . .	28 } 2,25
"Berezi", A. Labayen'ek parantzeratik euskeratutako elkafizketa . . .	29 } 2,25
"Iñi-Itzaldia", " " itzulitako bakafizketa	31 } 1,25
"Neskamearen marmafak", Luzear'ek idatzitako bakafizketa	31 } 1,25
"Mirentxu", Alfredo Etxabe'k sortu ta Zubimendi'tar Joseba'k euskeraturiko bi ekitalditan eresantzerkia . . .	32-33--1,75
"Gogo-Oñazeak", Mujika'tar Tene'ren iru ekitaldiko antzerkia	34-35-36 2,25
"Mox, Mlss, Xapt", Arotzena'tar Andoni'ren ekitaldi bakafeko antzerkia . . .	37 } 1,25
"Balujan", " " bakafizketa	37 } 1,25
"Eriotz-bide" Paul Humpert, O. M. i.'ren iru ekitaldiko antzerkia.	38-39--1,75
"Gal dagonaren Indara" Bariola ta Aizpurua'tar Abelin'en jostludua ekitaldi batean	40 1,25
"Eun Duku" Lekuona Anaien bi ekitalditako antzerkia . . .	41-42 1,75
"Gizon Bizarpetluti eta Enazte Bizartsuti" A. Labayen'en bi ekitaldiko jostludua . . .	43 1,25

" <i>Elezatzoko Ardazlea</i> " E. Gorostidi ta Agifetxe'en bi ekitaldiko ta azken zati dun antzerkia.	44-45	1,75
" <i>Gabon</i> " Muxika'tar Tene'ren umientzako antzerkitxoa.	46	1,25
" <i>Islotz Oneko Neskatala</i> " Amonafiz'tar Ander'en umientzako antzerkitxoa	46	
" <i>Garo-usala</i> " Kafaskedo Olafa'tar Iakinda'ren iru ekitaldiko antzerkia.	47 48	1,75
" <i>Antzerti yayan izan naz</i> " Urkiaga'tar Eusebi'k idatzitako ba- karizketa	49	1,25
" <i>Xanko ta Paxko</i> " Arozena'tar Andoni k idatzitako elkarizketa	49	
" <i>Seme ondatzallea</i> " Markiegi'tar Peli'ren antzerkia lau ekitalditan.	50-51	1,75

